



KONTSULTA, NAFARROAKO LGTBI+ KONTSEILUAREN SORRERARI BURUZKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA PRESTATU AURREKOA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, arau-proiektu bat prestatu aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen herritarren eta erakunde nabarmenen iritzia jakiteko. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau horren onspenaren premia eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik edo ez-erregulatzailerik.

Dokumentu honek helburu du indarrean dagoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 133.1 artikulua aipatzen dituen gaiari konponbidea ematea, baita oinarria izatea ere aldeztu aurreko kontsulta publikorako, Nafarroako Foru Komunitateko LGTBI+ Kontseiluaren sorrera arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua prestatu aurretik, herritarrek parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Nafarroako Foru Komunitatean 8/2017 FORU LEGEA, ekainaren 19koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa dago. Bertan organo parte-hartzaile horren sorrera zehazten da.

b) Arau horren onspenaren premia eta egokitasuna.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eskuduntzen artean emakume eta gizonen arteko berdintasun politiken koordinazio eta kudeaketaren ardura dago, Nafarroako Foru Erkidego mailan, Institutu autonomoa arautzen duen 240/2015 Foru Dekretuak zehazten duenaren arabera.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren Sustapenaren eta Kudeaketaren Zuzendariordetzaren eginkizunen artean LGTBI kolektiboaren benetako berdintasuna bultzatzea eta eragitea dago, bai eta kolektiboak jasan dezakeen generoagatiko bazterkeria gainditzeko neurriak garatzea ere.

LGTBI arloko Berdintasunerako Bulegoa Sentsibilizazioaren eta Partaidetza Sozialaren Atalari atxikitua dago. Bulegoaren eginkizunen artean dago LGTBI berdintasunean estrategia eta ekintzak bultzatzea, bai eta LGTBI errealitatea ezagutaraztea ere.



Nafarroako Foru Komunitatean 8/2017 FORU LEGEAK, ekainaren 19koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoak, Nafarroako LGTBI+ Kontseiluaren sorrera jasotzen du LGTBI+ pertsonen eskubide eta betebeharren gaietan herritarrek parte hartzeko organo goren gisa eta, halaber, arlo horretan eragiten duten nafar administrazioen kontsulta-organoa izateko, ezertan ukatu gabe legeek ezartzen dituzten beste organo batzuen eginkizunak eta eskumenak. Laugarren xedapen gehigarrian zehaztuta dago Kontseiluaren sorrera Legea indarrean sartu denetik 6 hilabeteren buruan eginen dela.

c) Arauaren helburuak.

- Nafarroako LGTBI+ Berdintasunerako Kontseilua sortzea eta haren atxikipena
 - o Nafarroako LGTBI+ Berdintasunerako Kontseilua sortzea eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuari atxikitzea
 - o Herritarren parte-hartze sustatzea, bai eta LGTBI pertsonen berdintasun sozialaren alde lanean ari diren taldeena ere.
- Nafarroako LGTBI+ Kontseiluaren eginkizunak jasotzea.
- Nafarroako LGTBI+ Kontseiluaren osaketa zehaztea.
- Antolaketa eta funtzionamendua zehaztea.
- Parte-hartzaileen hautaketa prozedura zehaztea, bai eta horien hautaketa-denbora, kargu-uztea eta uko egiteak ere.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile edo ez-erregulatzaileak.

Ez da aurreikusten inolako aukera erregulatzaile edota ez-erregulatzaileak ere.

Iruña 2017ko abuztuaren 31.